



arantzazu

Borondate onenarekin idatzi nahi nituzke ondorengo lerro hauek. Eta berri onen bat eman dezakedalakoan hasten naiz. Izan ere, irakurri berria dut orain guti euskal akademiko batek argitara eman duen liburuskara, eta, azken eskabideak irakurtzean batez ere, halako poz bat sumatu dut nere baitan. Beharbada ez gaude elkarrengandik hain urrun, batasunerako iritzietan behintzat!

Honez gero irakurleak dakienez azken garai hauetan jende asko kezkatu da euskerak ez duen eta behar lukeen batasunaz. Gaurko idazle gazteek zerbitzu on bat egin digute, noski, gure euskal kulturaren beharrian hori denen aurrean jarri digutenean. Lau urtetan egin den bidea ez da txantxetako gertatu, nahiz eta behin baino gehiagotan batasun-bide horiek nahiko malkarsuak egokitu.

Batasun behar horrek Bilera nagusi eta berezi bat eratzeraz eraman zuen Euskaltzaindia; 1968ko urrian egin zen Biltzar hau Arantzazun. Bilera haren agiriak zenbait kontseilu eman ere egin zuen: ortografiaraz, hitzen formaz, etab. Lehen pauso bat zen hura: oraindik hizkuntzaren azalean gelditzen zen, gehiagotara ausartu gabe, eta beste beharrezko batasun-eginkizunak hurrengo baterako utziaz.

Bienbitartean euskal akademiako batzordeak (komisioak) lanean ari zaizkigu, hasitako lan hura burutu dezaten. Harrez gero ortografiaraz-eta eman dira agiri eta erregla batzu. Esan dezagun Euskaltzaindiaren egunean eguneko lana betetzen doala, hortarako eratuta dauden Batzordeen lanak euskaltzain osoek ontzat ematen dituzten neurrian. Halanola, haurrentzako hiztegia. Bi urtetako ahaleginen ondorena izan da hau. Baina gaur ez dut aipatu baizik egingo komisio horien lana. Euskal aditzarenak, berriz, behar luke hemen arreta berexiago bat.

Euskal aditzaren (berbuarena, esan nahi da) Batzordeak, eskatzen zitzaion lanerako enbarazo bereziak zituen. Izan, ere, aditzaren

batasun bidea ez bait dago, hemendik hau eta bestetik hura hartuaz erabakitzerik. Batzorde lagun guzietan ikusten zutena zen; berbua ezin liteke osa (hizkuntzak dituen barne-loturak hautsi gabe) euskal dialekto guzietatik adizkerak banaka banaka aukeratuaz. Esan dezadan adibide batekin: naiz, naz niz hiru adizkera desberdin horiek erabiltzen ditugu gauza batbera esateko. Berdin beste askotan ere: gera, gara, gira, gire; dizkiguzu, deuskuzuz, derauzkiguzu, dauzkiguzu; niz, kioke, neuskioz, nerauzkikeo. Talde bakoitzeko adizkera bakoitzak beste taldekideen esanahi bera du. Era desberdinen artean hautatu egin behar zen batasunerako egokiena gertatuko zitzaiguna. Nola aukera, ordea?

Izan ere, berbuaren adizkera bakoitza, sistema baten barruan aurkitzen dugu: "gera" esaten duenak "zera", "zerate" esaten ditu, (eta ez zira, etab). Horietatik bat aukeratzek, sistema bereko beste denak hartu beharra dakar. Ez zen, beraz, bidegurutze samurra. Gipuz-nafarreraren dizkiguzu aukeratzek, esate baterako, bizkaierazko deuskuzuz eta ahaidekoak deust=dit, deustuguz =dizkiegu, etab.) uztea esan nahi zuen. Euskerak gaur eta bere historian eskaintzen dituen aditz-sistema (sistemas verbales) desberdinen artean aukeratu behar hori ezarzen zitzaion Batzordeari. Egia, badaude alde handi gabeko erak ere, niñeke, nindeke, ninteke,, neinteke adibidez, baina holakotan sistematasunaren legea ez da hain hestua, eta batez ere euskalkien arteko aldeak ez dira izugarriak gertatzen.

Laburtuaz: Batzordeak bi maila desberdinetako lanak zituen, adizkerak aukeratzek eta —zailago gertatzen zena— sistema bat probatzek. Euskal berbua lau sistema eskaintzen zizkion Batzordeari: 1, bizkaiera; 2, nafar-gipuzkoera; 3, lapurtera klasikoa, eta 2, lapurtera berria. Bizkaiera —bere apartekotasun bereziagatik-edo— ez zuen, esateko, inork seriooki proposatzen batasun-bide izan zedin. Batzordeko lagunek gehienbat nafar-gipuzkera nahiago zuten, eta ha-

1972: batasuna nahi

siera batetan bizpahiruk nahi zuten lapurtera (klasikoa nahiz gaurkoa).

Euskal aditz batuaren Batzordeak urtebeteko lana egin du. 1971-ko abuztuan agiria zuen bere lehenen bilera Baionako Euskal Museoan, eta uztailaren 27-29etan bildu da azken aldikoz, Arantzazun. Oraingoz aditz laguntzaileari heldu dio bakarrik eta batzorde lagunak bat zetozen adizkeretan saiatu da batez ere bere lehenen ekinaldian. Honela, uztailleko bilera horren aurretik adizkera zerranda luze bat aukeratuta zedukan; baina eztabaidagairik gogorrena ikutu gabe zegoen oraindik: lau sistema posible haietatik zein da egokiena batasun-bide bezala eskaintzeko?

Arantzazun uztailaren 29an euskaltzain osoek eta batzordekoek firmatu zuten agiria bide argigarri gertatuko zaigu guzioi. Euskeraren batasunerako hartu den erabakirik ardurazkoenetakoa da, nere ustez. Ez zaio inori ezer ezarri nahi, ez da ezer agintzen: Akademia batek egin dezakeen gauza bakarra egiten da: kontseilatuz, bide bat egokia dela esan, aukeratuak dirudiela egokiena, esan. Baina kontseilu horrek badu indar bat: batzordekoak euskal aditzari buruzko jakitunak ziren eta euskalki guzietatik aukeratuak, eta Akademiari proposamendu bat egin diote; Akademia horrek, eztabaidatu ondoren, beretu egin du proposamendu hura. Eta —agirian bertan ditugun muga guzietan noski— egindako proposamendua batasunerako era egoki bezala ematen zaigu orain. Ez dezaket hemen proposamendu haren eta agiri horren berri zehatzik eman; baina lana eginda dago alde askotatik.

Sistema aukeratzean, badirudi, azken orduko aldaketarik ez baldin bada, nafar-gipuzkoera onartuko dela, eztabaidakizun ziren puntu askoren irtenbide bezala. Batzorde lagunak, batek ez beste bide hori onartu bait dute egingabe dagoena burutzeko. Hala ere, esan beharra dago, nafar-gipuzkoera horrek baditu bere hutsuneak, gainerako euskalkietan argiago eta osatuago dauden puntuak; honegatik, aukeratzen den aditz-sistemari bizkaieraz nahiz bestetan lagun-garriak bilatu beharraz zaizkio, eta hori izango da noski aurrerakoan Batzordearen lanik gogortxoena.

Beharbada lerro hauek argitara eman aurretik, Euskaltzaindiaren Agiria zabaldua izango da. Dena dela, hizkuntzaren beraren barnetik behar den batasuna sortzeko erabakirik garrantzikoena oraingo hauxe izango da. Agian ez du 1968ko Agiriak ekarri zuen zaratarik sortuko eta, alde horretatik, jendeagan ez da halako beroaldirik eta kezkarik biztuko; baina euskalkien gaindi euskeraren benetako batasuna sortzeko pausorik handiena eta probetxuzkoena izango dela esango nuke. Hori bai: batasunerako egokiera hau eskaintzeak ez du ukatzen euskalkien balioa eta euskaldi bakoitzeko berbuaren sistema-bikaintasuna. Pontu honetan argi jokatu nahi du Agiriak eta espresuki azpimarkatzen du euskalkien aberastasun hori. Hala ere, batasunera jo nahi duenak —eta nork ez du nahi!— ezaguna du gaurgero Euskaltzaindiak egokien bezala ikusten duen bidea. Guziontzat gerta daiteke onuragarri eta probetxuzko.

Joseba INTXAUSTI



SI AMA A ARANZAZU,

- * suscribase a "Aranzazu", alma de su historia y de su espiritualidad actual.
- * preste su revista a sus amistades para que ellas la conozcan y puedan suscribirse.
- * Anímese a que se suscriban inmediatamente, a fin de defender y fortalecer la prensa católica, sobre todo, la revista de nuestra Andra Mari.
- * ARTU, IRAKURRI TA ZABALDU "ARANZAZU", AMA BIRJINAREN ILLEROKOA.